

3 minutura arteko ikus-entzunezko edukiak sortzeko lehiaketa

[1] DESKRIBAPENA

"ZiNaizen" lehiaketaren II. edizioan parte hartzera gonbidatzen zaitugu. Ikus-entzunezko lehiaketa honen helburua haur eta nerabe transen istorioak, esperientziak eta errealitateak ikusaraztea eta balioan jartzea da, gehienez ere 3 minutuko ikus-entzunezko piezak sortuz.

Deialdia NAIZEN ATF elkarteak sustatu du, Zinegoak Jaialdiarekin, EITBrekin, BBK Fundazioarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Sailarekin elkarlanean. Bigarren edizio honetako ikus-entzunezko lan onenari emango zaion EITB SARIAK 2027ko Zinegoak Jaialdiaren barruan banatuko da.

Lehen edizioak izandako arrakastaren ondoren, bai lortutako parte-hartzeari dagokionez, bai aurkeztutako lanen kalitateari eta aniztasunari dagokienez, «ZiNaizen» lehiaketak bigarren edizioa ospatuko du, ekimena sendotu eta zabaltzeko, haur eta nerabe transen errealitateak ikusarazten jarraitzeko eta haien bizipenak kontatu, partekatu eta gizarte osoari hurbiltzeko espazio berriak sortzeko helburuarekin.

Lehiaketan 18 urtetik gorako edozein pertsonak parte hartu ahal izango du, profesionala zein afizionatua izan, edozein nazionalitatetakoa. Kontatzeko istorio bat, partekatzeko begirada bat edo errealitate horiek gizartera hurbiltzen lagun dezakeen ideia bat baduzu, hau da zure espazioa!

Lanek edozein genero, ikuspegi edo ikus-entzunezko formatu landu ahal izango dute: fikzioa, dokumentala, animazioa, bideosorkuntza eta abar.

Lehiaketatik zineforumetara: beren bidea jarraitzen duten istorioak

"ZiNaizen" ez da sari-banaketarekin amaitzen. Finalista gisa hautatutako lanak ikus-entzunezko muntaketa bateratu batean bilduko dira, aurkeztutako istorioek lehiaketatik harago beren ibilbidea jarrai dezaten.

Muntaketa hori zineforumak eta topaketa-, hausnarketa- eta elkarrizketa-guneak egiteko tresna gisa erabiliko da. Jarduera horiek askotariko publikoei zuzenduko zaizkie eta hainbat udalerritan eta hezkuntza-, gizarte- eta kultura-esparrutan garatuko dira.

Proiekzio eta ondorengo solasaldien bidez, haur eta nerabe transen errealitateak hurbildu eta ikusarazi nahi ditugu, elkarrizketak sortu, zalantzak argitu, aurreiritziak zalantzan jarri eta haien esperientzien aniztasunarekiko begirada hurbilagoa eta errespetuzkoagoa sustatu.

Horrela, lan finalistak ez dira ikus-entzunezko lehiaketa baten parte izatera mugatuko; aitzitik, sentsibilizaziorako eta gizarte-eraldaketarako tresna bihurtu ahal izango dira.

Parte hartu "ZiNaizen"en II. edizioan eta lagundu, ikus-entzunezkoen bidez, gizarte errespetuzkoagoa, anitzagoa eta inklusiboagoa eraikitzen!

[2] LEHIAKETAREN HELBURUAK

- Haurtzaroan eta nerabezaroan dauden errealitate transen ikusgarritasuna eta aitortza sustatzea, errespetua, inklusioa eta haien eskubideen aitortza bultzatuz.
- Gizartea haur eta nerabe transen esperientzien, bizipenen, erronken eta egoeren inguruan sentsibilizatzea, haien eskubideak errespetatu, babestu eta bermatzeko beharrari buruzko kontzientzia sortuz.

- Ikus-entzunezkoak sentsibilizaziorako, hausnarketarako eta gizarte-eraldaketarako tresna gisa erabiltzea, elkarrizketa sustatuz eta aurreiritziak eta estereotipoak zalantzan jartzen lagunduz.
- Ikus-entzunezko sortzaileen sormena eta talentua sustatzea, haur eta nerabe transen errealitateak eta aniztasuna ikuspegi sortzaile eta originaletatik lantzera animatuz.
- Lan finalistei jarraipena eta zabalkundea ematea, zineforumak eta sentsibilizazio-jarduerak egiteko ikus-entzunezko muntaketa bat sortuz, hezkuntza-, gizarte- eta kultura-esparru desberdinetan erabiltzeko.

[3] LEHIAKETAN LANTZEN DEN GAI ESPEZIFIKOA

Aurkeztutako lanek, besteak beste, honako gai hauek landu ahal izango dituzte:

- Pertsona transen esperientziak eta bizipenak haurtzaroan eta nerabezaroan.
- Eguneroko bizitzako hainbat esparrutan aurki ditzaketen erronkak, hala nola familian, eskolan, osasun-arloan, gizarte-harremanetan, kirolean edo aisialdian.
- Zenbait zerbitzu, baliabide eta eskubide eskuratzeko aurkitzen dituzten oztopoak.
- Adingabe transen identitatea beren bizitzako esparru guztietan aitortu eta errespetatzearen garrantzia.
- Haien identitatearen legezko aitortza eta harekin bat datorren dokumentazioa lortzeko egon daitezkeen oztopoak.
- Eskubide-berdintasuna, diskriminaziorik eza eta gizarte errespetuzkoago eta inklusiboago baterantz aurrera egiteko garatzen diren ekimenak.
- Laguntza, babesa, onarpena, bizikidetza eta aniztasunarekiko errespetua erakusten duten istorio eta esperientzia positiboak.

[4] LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Parte-hartzaileak

18 urtetik gorako pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute, profesionalak zein afizionatuak eta edozein nazionalitatetakoak, baldin eta haien ikus-entzunezko lanek haurtzaroko eta/edo nerabezaroko errealitate transak lantzen edo erakusten badituzte.

Lanek originalak izan beharko dute eta ezingo dira komertzialki estreinatuak izan jaialdia egin aurretik.

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru lan aurkeztu ahal izango ditu.

Antolakuntzak eskubidea izango du oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten edo lehiaketaren gaiarekin eta helburuarekin bat ez datozen lanak ez onartzeko.

2. Lanen iraupena

Ikus-entzunezko lanek ezingo dute 3 minutu baino gehiagoko iraupena izan, hasierako eta amaierako kortinillak barne.

3. Formatua

Ikus-entzunezko edukiak formatu digitalean aurkeztu beharko dira.

Fitxategiak gehienez 900 MB-ko tamaina eta 1920 × 1080 px-ko (Full HD) bereizmena izango ditu.

4. Hizkuntza

Euskaraz eta/edo gaztelaniaz egindako ikus-entzunezko lanak onartuko dira, azpituluekin.

5. Izen-ematea

“ZiNaizen”en aurrehautaketa-fasean parte hartzeko, lanak 2027ko apirilaren 13a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Izen-ematearekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Izen-emate fitxa behar bezala beteta eta sinatuta edo zigilatuta, lanaren zuzendaritzak, ekoizpenak edo lana aurkezten duen pertsona fisikoak sinatua, ***info@naizen.eus*** helbide elektronikora bidalita.
- Ikus-entzunezko lanaren fitxa teknikoa eta artistikoa.
- Ikus-entzunezko lanaren eskubideen titularra den pertsona fisikoaren NANaren fotokopia.

Ez da behar bezala beteta ez dagoen izen-materik onartuko.

Lan bakoitza izen-emate fitxan agertzen den pertsona fisikoaren izenean erregistratuko da. Antolakuntzak ulertuko du pertsona horrek aurkeztutako lanaren gaineko beharrezko eskubideak dituela; beraz, ez du bere gain hartuko egiletzaren edo eskubideen titulartasunaren ondorioz hirugarrenek egin ditzaketen erreklamazioen gaineko erantzukizunik.

Izen-emate fitxan titular gisa agertzen den pertsona eta lana zuzentzen duen pertsona desberdinak badira, EITB SARIAK-ren onuraduna ikus-entzunezko lanaren zuzendari gisa agertzen den pertsona izango da.

6. Hautatutako lanak erakusteko eta erabiltzeko eskubideak

Lanak hautatuak izan diren parte-hartzaileek baimena ematen diote “ZiNaizen”en antolakuntzari, izaera ez-esklusiboarekin eta merkataritza-helbururik gabe, hautatutako lanak lehiaketaren eta proiektuari lotutako jardueren esparruan proiektatzeko, erakusteko eta zabaltzeko.

Era berean, lan finalistak, osorik edo zati batean, zineforumak, proiekzioak, hezkuntza-jarduerak eta sentsibilizazio-ekintzak egiteko ikus-entzunezko muntaketa bateratu batean sartu ahal izango dira, NAIZENek antolatutako edo sustatutako jardueretan erabiltzeko.

Jarduera horien helburua haur eta nerabe transen errealitateak ikusaraztea, elkarrizketa eta hausnarketa sustatzea eta aniztasunarekiko errespetuzkoagoa den gizartea eraikitzen laguntzea izango da.

Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauetan ezarritako baldintzetan erabilera horietarako baimena ematea dakar.

7. Hautaketa Batzordea eta Epaimahaia

“ZiNaizen”ek Hautaketa Batzordearen eta Epaimahaiaren osaera erabakiko du.

Organo horiek ikus-entzunezkoen arloarekin eta/edo LGTBIQ+ aktibismoarekin lotutako pertsonek osatuko dituzte, eta haien erabakiak apelaezinak izango dira.

Epaimahaia ikus-entzunezkoen arloko profesionalek, NAIZENen ordezkari batek eta Zinegoak Jaialdiaren ordezkari batek osatuko dute, eta ikus-entzunezko lan irabazlea aukeratzeaz arduratuko da.

8. Hautaketa- eta ebaluazio-prozesua

- Deialdia eta lanak jasotzeko epea: 2027ko apirilaren 13ra arte.
- Hautatutako ikus-entzunezko lanen jakinarazpena: 2027ko maiatzaren 5ean.
- Finalisten lanen aurkezpena: 2027ko ekainaren 24ean. (Bilbon, Sala BBK)
- Ikus-entzunezko lan irabazlearen jakinarazpena: Zinegoak 2027 Jaialdiaren Amaiera Galan.

9. EITB Sariak

Ikus-entzunezko lan irabazlearentzat 1.000 euroko saria ezartzen da, zergak barne.

Saria dagokion faktura aurkeztu ondoren ordainduko da.

10. Lehiaketaren sustapena

“ZiNaizen”ek, lehiaketa sustatzeko eta zabaltzeko helburu esklusiboarekin, hautatutako ikus-entzunezko lanetako gehienez 90 segundoko irudiak erabili ahal izango ditu. Irudi horiek komunikabideetan, sare sozialetan, webguneetan eta antolakuntzaren bestelako komunikazio-kanaletan zabaldu ahal izango dira.

11. Hautatutako parte-hartzaileen betebeharrak

Hautaketa ofizialean sartutako lanen arduradunek proiekzio-kopia (Blu-ray, H.264 edo DCP) 2027ko maiatzaren 16a baino lehen aurkezteko konpromisoa hartzen dute.

Ez dira onartuko osatu gabeko proiekzio-kopiak, egoera txarrean daudenak, kalitate eskasekoak edo oinarri hauetan adierazitako formatuetatik bestelakoetan aurkeztutakoak.

Era berean, honako material hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Lanaren hiru fotograma.
- Ikus-entzunezko lanaren kartela.
- Zuzendariaren argazkia bereizmen handian (300 ppp).

Lana azpititulatu behar bada, honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Azpituluen fitxategia (.srt) eta/edo elkarrizketen zerrenda gaztelaniaz/euskaraz.
- Lanaren trailerra .mov edo .mp4 formatuan, H.264, Full HD (1080), azpititulurik gabe.

Eskatutako kopiak eta materialak antolakuntzak ***www.naizen.eus*** webgunearen bidez adierazten dituen bitartekoen bidez bidaliko dira.

Antolakuntzak eskatutako materialak ezarritako epean jasotzen ez baditu, lana lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea izango du.

“ZiNaizen”en parte hartzeko hautatua izan ondoren, ezin izango da lanik erretiratu Zinegoak 2027 Jaialdiaren esparruan aurreikusitako erakusketa-jarduerak amaitu arte.

12. Emaitzaren jakinarazpena

Lehiaketaren emaitza Zinegoak 2027 Jaialdiaren Amaiera Galan jakinaraziko da publikoki.

13. Lan irabazlearen identifikazioa

Ikus-entzunezko lan irabazleak, lanarekin lotutako ondorengo publizitate eta zabalkunde-material guztietan, “ZiNaizen”en antolakuntzak emandako aipamena eta logotipoak sartu beharko ditu, EITB SARIAK jaso duela egiaztatzeko.

14. Oinarrien hizkuntzak

Oinarri hauek euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko dira. Bi bertsioen artean zalantzarik, desadostasunik edo anbiguotasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa izango da baliozkoa.

15. Oinarrien onarpena

“ZiNaizen”en parte hartzeak oinarri hauek osorik onartzea dakar, baita Hautaketa Batzordeak, Epaimahaiak eta antolakuntzak beren eskumenen esparruan hartutako erabakiak onartzea ere.